

Caritas Gipuzkoa migratzaileekin

CARITAS GIPUZKOAtik gogoeta batzuk partekatu nahi ditugu gure lurraldera etorritako migratzaile, iragaitzazko migratzaile eta errefuxiatuen etorreraren eta azken hilabeteetan izan den hazkundearen inguruko analisiaren, posizionamenduaren eta erantzunaren inguruan.

Eguno migrazioen testuinguruaren elementu batzuegatik eta bide seguruen gabeziagatik, asko dira Europara “Hegoaldeko mugatik” iritsitako pertsonak. CARITAS GIPUZKOAK eta beste erakunde sozial batzuek errealitate hori (etorrera kopurua handitzea eta harrera-egoera txarra) zabaldu dugu.

Zalantzarik gabe, gai hori dagoeneko eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko hainbat espaziotan dago (eta egongo da); bereziki, hedabideetan, baina baita kalean eta, batik bat, eremu politikoan ere (egon

litezkeen larritasun-egoerei aurre egiteko).

Horrexegatik, pentsatu dugu egokia zela **dokumentu hau** partekatzea errealitate hori nolakoa den eta gure erantzuna eta ekintza soziala zein diren azaldu ahal izateko, *migratzaileei duintasunez arreta emateko beste proposamen eta baliabide sozial batzuekin bat egiteaz gain.*

«Dei-efektua» delakoak eta ikuspegi murritzaleek lehen harrerari erantzun mugatua ematera baino ez gaituzte eramaten (bereziki beharrian materialei erantzuteko). CARITAS GIPUZKOAn, ordea, **erantzun globala** eskaini behar dugu, gure gizarte-ekintzako ereduaren arabera. Gainera, aurrera jarraitu behar dugu beste agente sozial batzuekin **koordinatu eta sarean lan egiteko**. Izan ere, administrazioetik helarazten dizkiguten eta helaraziko dizkiguten lankidetzaz-eskaerei ere erantzun behar diegu.

Partekatu nahi ditugun puntuak

1 CARITAS GIPUZKOAREN ekintza soziala migratzaile eta errefuxiatuei emandako gizarte-ekintza harreratik hasten da, eta laguntza soziala eta oinarritzko eskubideetarako sarbidea eman eta gero, laneratzera eta gizarteratzera zuzendutako lana egitera ere iristen da.

Ez gara larrialdiko harreretan espezializatutako erakundea, baina, hala ere, Caritas gai izan da bere parrokia-sarearen eta proiektu espezifikoaren bitartez beharizan materialei erantzun solidarioa emateko, baita administrazioek hala eskatu digunean ere; baina, beti jardun izan dugu definitzen gaituen **subsidiarotasun-printzipioa** aintzat hartuta.

2 Horrenbestez, CARITAS GIPUZKOAK lehentasunez egon behar du **laguntza-prozesuetan**, eta bertan eskaini behar ditu, hain zuzen, baliabide sozialak (baliabide materialak eta giza baliabideak). Horrez gain, Gipuzkoako auzo eta hirietako bizikidetzari ere ekin behar dio.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartuta handitu egin dela iritsi zaigun migratzaile kopurua eta aurreikusita dagoela datozen hilabeteetan *ad hoc* erantzunak eman beharko ditugula, dokumentu honetan honako hauen berri eman nahi dugu: aspalditik ditugun **arreta espezializatuko programa eta baliabideak**, 2018ko irailaren 30 arte emandako arreta-zerbitzu kopurua eta CARITAS GIPUZKOAREN egungo egoera migratzaile eta iragaitzazko migratzaileei harrera egin eta arreta emateari dagokionez.

Etixerik gabeko pertsonak

701 migratzaileari eman zaie arreta 2018an, eta horietatik **497 “Hegoaldeko mugako” migratzaileak** ziren.

Egun gure baliabideak erabiltzen ari direnak: **“Hegoaldeko muga”ko 128 migratzaile**.

Familia, emakumea eta haurrak

Miriam^[1] programaren baitan, zeinetan harrera, laguntza eta prestakuntza eta ikastaroak eskaintzen diren, **1.114 emakume migratzaileari arreta** eman diegu; horietatik **62 “Hegoaldeko mugatik” sartutakoak**.

Adore laguntza-programak^[2] CEAREN laguntza-programan sartu arte lagundu du **familia migratzaile bat** (2 pertsona).

Etxebizitza eta harrera-zentroak

83 pertsona ditugu egun **Zubia**^[3] programan, eta horietatik **63 migratzaileak dira**, helduak eta adingabek barne hartuta. “Hegoaldeko mugatik” 26 pertsona sartu dira (15 emakume, 7 gizon eta 4 adingabe), eta horietatik **19k izan dute 2018an gure baliabideetan sartzeko aukera**.

Sorabilla^[4] harrera-etxean 12 pertsonari eman diegu arreta 2018an, eta horietatik **8 sartu dira “Hegoaldeko mugatik”**.

Ekonomia solidarioa

Sarea Fundazioko, Bidean^[5] eta **Goierrri** programak espazio okupazionaletan **57 migratzaileari** ematen diegu arreta, eta horietatik 34 sartu dira “Hegoaldeko muga-

[1] Etorkinei zuzenduriko MIRIAMen gizarteratzeko programa sozio laborala, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartua dago.

[2] Familia programak Gipuzkoako Foru Aldundiatik dirulaguntza jasotzen du.

[3] ZUBIA programak 5 PISU ditu itunduak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

[4] Sorabilla harrera-etxea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itundua dago.

[5] SAREA FUNDAZIOA BIDEAN programak 10 plaza ditu itunduak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

tik". Azken horietatik **9 sartu dira aipatutako proiektuetan 2018an.**

Aholkularitza juridikoa

261 migratzaileri eman diegu arreta 2018an, eta horietatik 154 datoz "Hegoaldeko mugatik". Horrez gain, azken horietatik 104 datoz Saharako hegoaldetik.

Harrera jaso duten migratzaileak

Gure lurraldera hegoaldeko mugatik sartu diren (ez aurtan espezifikoki) eta Caritasen arreta jaso duten migratzaileak.

UGP	497
Familia eta emakumea	64
Zubia programa	19
Sorabilla zentroa	8
Ekonomia Solidarioa	9
Aholkularitza juridikoa	154
Guztira	751

Caritas 2018 (irailaren 30a arte)

3

CARITAS GIPUZKOAn ez dugu gure lurraldean soilik garatzen harrera-eta laguntza-ekintza; izan ere, **anaitasunezko kooperaziora** deituta gaude, eta baita jatorrizko lurraldeetan eta iragaitzan daudenean gertatzen diren egoeretan laguntzera ere. Dokumentu honetan Afrikan eta Erdialdeko Ekialdean

ematen dugun laguntza jaso nahi dugu batez ere.

- Hain zuzen, LIBANOk Fratelli haurrentzako programa babesten dugu.
- BENINen, eskola bat eraikitzen eta osasun ekipamendua hornitzen ari gara.
- KENIAN emakumeen ahalduntzea sostengatzen ari gara.
- KONGOn gaude.
- Gazteen lanbide heziketa bultzatzen ari gara MOZAMBIKEN.
- Eta Zaporeak-en eskutik laguntza humanitarioa eskaintzen ari gara ATENASen (Grezia).

4

Azkenik, CARITAS GIPUZKOAK jakitun da zer garrantzitsua den hedabideetan eta gizartean orokorrean gai honi ematen zaion trataera; hortaz, ezinbestekoa da sentsibilizazioa eta sentsibilizaziorako komunikazioa lantzea. Horrez gain, Caritaseko agente guztioi migratzaileen errealitatea zein den azaltzea ahalbidetuko digun argumentu-zerrenda labur bat ere izan behar dugu, horrela bizikidetzan eta anaitasunezko solidaritatean oinarritutako diskurtsoak indartzeko. HARRERA EGIN, BABESTU, LAGUN EGIN eta GIZARTERATZEAZ gain, gure nortasun kristautik, iritzi informatu eta solidario bat osatzen parte hartu behar dugu.

Lehen dokumentu hau CARITAS GIPUZKOAK migratzaileei egiten dien harrerari eta haien errealitateari egiten zaion hurbilpena da; zehazki, 2018an "Hegoaldeko mugatik" datozen migratzaileei emandako arreta espezializatuan zentratzen da, horrela gure gizarte-ekintzari ikusgaitasun handiagoa emateko. Hala ere, migratzaileekin egiten ditugun ekintzak

zabalagoak eta anitzagoak dira, eta hainbat lan-esparru hartzen dituzte barne, besteak beste:

- Harrera (parroki sarea).
- Laguntza egiteko prozesu sozio-hezitzaileak, hezigarriak eta lan eremukoak, eta komunitate artekoak.
- Intzidentzia eta sentsibilizazioa.
- Ekintza humanitarioa.